

20.  
urteurrena

# ortzadar

larunbata, 2016ko irailaren 24a. 465. zenbakia

[deia.com/ortzadar](http://deia.com/ortzadar)

**euskal kulturaren kolore guztiak**

MIRENTXU  
LOYARTE,  
IRRINTZI  
GALDUA

“Nire dokumentalak  
deidarrak dira”

-- 4-5. orrialdeak --







## MIRENTXU LOYARTE

ZINEGILEA

## “Errealitatea asko okupatu da nitaz, larregi”

Ezkutuan egon da 30 urtez, harik eta Iratxe Fresneda EHUko irakasleak lokalizatu duen arte. **Mirentxu Loyartek** (Iruñea, 1938) Espainiako Estatuan 1970eko hamarkadan ikusitako lan zinematografiko ausartenetako bat ondu zuen, ‘Irrintzi’ (1978). Hiru urte beranduago, ‘Euskal Emakumeak’ filmatu zuen, euskaraz. Orain, ‘Irrintziaren oihartzunak’ dokumentalak atera du itzalpetik lehen euskal emakume zinegilea

 IÑAKI MENDIZABAL ELORDI


**E**USKADIKO Filmategiaren artxiboetan ostenduta egon da urte luzez. Hantxe aurkitu zuen Iratxe Fresneda irakasleak, metalezko erroilu eta larruzko maleta zimurtuen artean, kanfor usaina zeriola. *Irrintzi* jartzen zuen tapak. Zeluloide zatia askatu eta proiektatu zuenean, aspaldiko deiadar batek astindu zuen bere bihotza, belaunaldi oso baten deiadar ozenmingarriak.

Orain, Fresnedak *Irrintziaren oihartzunak* dokumentala aurkeztu du Zinemaldian, bere aurkikuntza harrigarria jaialdiko zaletuekin konpartituz, eta, bide batez, Mirentxu Loyarteren ibilbide labur bezain indartsua azalerratu du. “Topaketa baten kontakizuna da, hezur eta mamizko altxor zinematografiko baten bilaketa; gogoratzeko zailtasunak dituen pertsonaia batena, edo gogoratu nahi ez duen batena”, adierazi du Fresnedak.

Loyarte, baina, ez da emakumezko ahula, ez isila, ezta ezkorra ere. Bizitzaren gazi-gozotan igerian ibili den ororen neke agerikoa du, bai, baina badauka malenkonia eta nostalgia-

ren kontrako antidotoa: ironia fin-fina. Berba egiteko gogoz aurkitu dugu, bere jaioterrian. Zigarroaren keak aurpegi osoa lausotzen dio eta hitz bakoitza eztena da bere ahotan: “Zer egingo diogu ba, ez naiz oso ondo kokatzen errealitatean, ez naiz konformatzen horrekin. Baina bera bai, errealtatea asko okupatu da nitaz, larregi. Utziko ahal nau bakean, tarte batez!”.

**Gogoritzen duzu nolakoa zen 70. hamarkadako Mirentxu?**

Handitu eta barreiatzeko gogoa zuen emakumezkoa. Mundu hertsia bizi zuen.

**Ipur-zirina zinen?**

Bai, beti izan naiz. Eta tematia. Eta hausnartzekoa, gauzei buelta asko ematen dien horietakoa izan naiz, neure burua aguantatzen ere lanak izan ditut.

**Noizbait geure buruari barkatzen ere ikasi beharko dugu, ezta?**

Ikasi nuen, aspaldi. Neurekiko distantzia hartzen saiatzen naiz; horrek asko laguntzen dit.

**Egonezinak eraman zintuen zinemagintzara ala egoera sozio-politiko latzak?**

Agian denak, baina txispa bestelako kontu batek piztu zuen. Nobela bat nuen idatzita; pertsona bati erakutsi nion, eta pertsona horrek esan zidan zine gidoiaren antza zuela testuak. Nik ere argi ikusi nuen: zinemagintza zen nire bidea. Irudien bitartez esango nuen esan beharrezkoa.

**Garai hartan, 60. hamarkadan, ez zen erraza izango. Are gutxiago euskal emakumezko batentzat, ezta?**

Ez ba. Gizarte oso lasaian bizi ginen, sakristia baten antza zuen gizarte batean –*lasai* eta *sakristia* hitzak komatxo artean jarri, bai?–. Itogarria zen giroa.

**Eta horregatik joan zinen Parisera?**

Gizona eta biok joan ginen, frantsesa eta zinemagintza ikastera. Guretzako berpiztea bezalakoa izan zen; hantxe zegoen dena antolatzen, 68ko Maiatza ospetsua, ezker mugimendu ugari... Gu bezalako gazte ipurterreentzat Meka zen hura, munduaren erdigunea. Ni pozik nengoen, guzti hura oso suspergarria zelako.

**Eta, nola sortu zen 'Irrintzi'?**

Nik zinema-artikulu solteak idazten nituen, eta halako batean Iñigo Silvak deitu zidan. Bera izan zen *Irrintzi*-ren ekoizlea. Silvak Luis Iturriren izen bereko antzezlanetan oinarritutako gidoi bat idazteko eskatu zidan. Metraje laburreko film bat egin nahi zuen, edo erdi-metrajekoa. Obra ikusi eta esan nion zerbait diferentea idatzi nahi nuela, aske jokatu nahi nuela.

Gero, Silvak zuzendariorde izateko eskatu zidan, eta, ezetz esan nionean, zuzendaritza eskaini zidan. Baietz esan nion eta aurrera egin genuen, askatasun osoz. Gero, Iturriri ez zitzaion gustatu eta bakanen batzuek ez zuten *Irrintzi* ulertu.

“Nobela bat neukan idatzita hasieran, baina argi ikusi nuen: zinemagintza zen nire bidea. Irudien bitartez esango nuen esan beharrezkoa”

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANT-  
ZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA

zinema



## Euskal emakumeen begiradak jasotzen

Mirentxu Loyarte (Iruñea, 1938) zinemagile nafarrak Espainiako Estatuan 1970eko hamarkadan ikusitako lan zinematografiko ausartenetako bat egin zuen: 'Irrintzi' (1978). Luis Iturriren antzerki-lan batean oinarrituta dagoen ikus-entzuzko horrek euskaldunen nortasun kolektiboari buruzko hausnarketa egiten du. Bere garaian, Espainiako Zinematografiako Zuzendaritza Nagusiak kalitatearen sari berezia eman zion. Javier Aguirresarobe izan zen argazki-zuzendaria, Fernando Larruquert muntaketa-lanen arduradun, eta Marivi Bilbao aktore zenaren lankidetzaren berezia izan zuen.

Erbestean zein etxean, Mirentxu Loyarte ez zuen bere ibilbidea lan horrekin amaitu, eta nolabaiteko introspektio antropologikoa egiten jarraitu zuen hain-



bat euskal emakumeren begirada jasotzen zuen erretratu baten bidez, 'Euskal Emakumeak' (1981) lanean. Ikuska 12 sailaren barruan, euskaraz filmatu zituen lan biak.

Larruquert eta Marivi Bilbao.

### Eta isil-gordean egon da gaurdaino...

Hasieran ikusi ahal izan zen, baina segidan erretiratu zuten, gaur arte. Baina nik beti errepikatu izan dut, mantra baten antzera, noiz-bait berpiztuko zela *Irrintzi*, aterako zela ilunpetik, eta begira, atera da.

### Hiru urte beranduago estreinatu zen 'Euskal emakumeak' dokumentala, non begirada zorrotza botatzen diozuen emakumezkoen egoerari.

Antxon Ezeizak planteatu zidan, bai. Gai hori eta beste bat neukan buruan, hain zuzen, festarena. Baina festa interes handiko elementu soziologiko moduan ulertuta, e? Azkenean, emakumearen hautua egin genuen, profil interesgarri batzuk aukeratu, ideia garatu eta aurrera.

### Dokumentalean agertzen diren emakumezkoen adierazpenak zorrotzak dira, baina irudi batzuk Buñuelen 'Un perro andaluz' gogorarazten dute, hain dira gogorrak...

Nik uste soinuak eragiten duela zirrara hori, irudiak bainoago. Dena den, ez, ez naiz aingerutarra, eta hori ere halabeharrez agertu behar da nire lanetan. Gainera, Trantsizio garaiko euskal emakumezkoak sufrizten zuten egoera salatu nahi nuen.

### Zentzu horretan, sumatu duzu aldaketarik?

Bai, guk iraultza bat bizi izan genuen. Oraingo neskek beste mentalitate bat dute, baina ez dakit guk adina kontzientzia duten. Orain eztabaidatzen dena eztabaidatzen zen orduan. Eta garai hartan lortu zena gaur egungo eguneroko diskurtsoan eta bizimoduan txertatuta dago. Baina arrisku bat ikusten dut hor...

### Zein arrisku?

Belaunaldi berriek ontzat ematen dituzte lortu txiki horiek, eta ez lukete horrela pentsatu behar. Borrokatzen jarraitu behar dugu, eta gure eskubideak aldarrikatzen, emakumezkoak desabantaila handiak dituelako oraindik. Beraien karrera eta ametsak sakrifika-tzen dituzte, gizonak bidea libre izan dezan. Gizonak bagaia gutxi darama aldean, zama edo fardel txikia, eta horregatik egiten du aurrera. Emakumezkoekin guztiz kontrakoa gertatzen da.

### Horrela amatatu zen zure zinema egiteko gogoa?

Jakina. Bizitza oso laburra da eta dena pasatzen da ziztu batean.

### Atzerriratzeak ere izango zuen zerikusia...

Denak. Hemen jasotako egurra, familia zaindu beharra... Eta erbestean zaila da kokatzea, norbera izatea, inoiz ez baitakizu ondo non zauden. Eta gizakiak erroak behar ditu, lur bat zapaldu eta bere egin. Zentzu horretan, erbestaldia bitxia da, flotatzen bezala zaudelako une oro. Hor bai, hor deskalabru handia dago.

### Ezkutuan egon zara 30 urtez. Zinemagintzara bueltatzeko gogorik edo asmorik bai?

Nik zer dakit ba! Paper ugari daukat etxean, baina denak apurtzeko gogoak ditut. Baditut gidoi batzuk, ideia solteak...

### Eta gauzatzeko intenziorik ez?

Zergatik ez? Nork daki? Denbora bat behar dut hau dena asimilatzeke, eta gero ikusiko dugu.

### Nik ikusi ditudan zatiak ondo ulertzen dira.

Bere garaian, ikuslerik gehienek horrela adierazi zidaten. Mezuak argi ikusten dira, amets baten gisan erakusten diren arren.

### Eta, zer da 'Irrintzi'?

Deiadar bat. Nik orduan jarri nuen moduan, "Pirinioetako hegaletan dantzatu eta kantatzen duen herriaren txostena". Voltairek hala deskribatu zuen bere garaian. Belaunaldi oso baten irrintzia, sistema hermetiko baten biktimen deiadara. Imajina ezazu, belaunaldi irendua... Eta oraindik ere hortik irten ezinean gabilta. Eta zaila da belaunaldi berriek orduko hura irudikatzea, garai hartako giro beltz eta astuna. Zaila dute irudikatzen, guk gure aitamen gerra irudikatzen ez genuen bezala. Horregatik da hain inportantea artea, gauzen beste alde ukitzen duelako. Datuak nahikoa ez direnean, errealtatea bera nahiakoa ez denean, hor dago artea bestelako gauzak adierazteko, gertakariak beste modu batera kontatzeko; askotan, egiazkoagoak direnak.

### Eta Zinemaldira aurkeztu zen 'Irrintzi'. Eta zu atxilotzeko agindua ere bota zuten...

Aukeratua izan zen, eta gero Gipuzkoako gobernadore zibilak ni atxilotzeko agindu zuen. Ez zitzaion gustatuko ikusi zutena...

Azkenean, Zinemaldiko orduko zuzendariak konbentzitu zituen, esanez astakeri bat zela hori, mundu guztia hara begira zegoen une horretan ezin zutela inor atxilotu, irudi eskasa emango zutela nazioartean... Horrelakoak esanda konbentzitu zituen, baina, jakin izan banu, agertuko nintzatekeen. A zer propaganda *Irrintzi*-rentzat, ezta?

### Garai hartan zaila izango zen politika eta artea bereiztea.

Ez zen erraza. Inguratan zaituen giro horrek... Eta gehiago ezin duzuean, arnasa ere hartu ezin duzuean, ezta da egiten duzue! Edo deiadar. Hori dena azaltzen edo salatzen saiatzen zara. Maite dut nire inguruarekin zerikusia duen zinemagintza.

Orain arte anonimotasunean mantendu izan den zuzendaria da Loyarte. Bere sorkuntza eta erbestean erretratuak da 'Irrintziaren oihartzunak' filma. INAKI MENDIZABAL

"Guk iraultza bizi izan genuen. Oraingo neskek beste mentalitate bat dute, baina ez dakit guk adina kontzientzia duten"

### Euskarazko testuak irakurtzen dira, Amurizaren bertsoak entzuten dira... Dena propio egina?

Jakina, hori zen naturalena, euskaraz egitea. Euskara da herri honen bizkarrezurra, baina onartu behar dut nire euskara traketsa dela. Garai hartan, uste nuen hizkuntzak berak blai-tuko ninduela, modu naturalean. Argi dago erratu nintzela.

### 70. hamarkadan, emakumezkoak ondo markatuta zuen gizartearen okupatu beharreko lekua. Zuretzako, zaila izan zen kate hori apurtzea?

Gizonek agintzen zuten gizarte-ean, goitik behera, baina denetarik aurkitu nuen bidean: lagundu zidaten pertsona zoragarriak eta kalte baino egin ez zidatenak ere bai. Hala ere, pieza txukuna ateratu zen. Neurri handi batean, talde txikia baina eraginkorra osatzen genduelako. Gogoratu tartean izan zirela Javier Aguirresarobe,





LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

# Begirada

## Arkaitz Morales Bilbo, 1981

ikus: [www.arkaitzmorales.com](http://www.arkaitzmorales.com)



Datorren astean...

Marina Gondra

h! Herri hizkeran jantzia? Sartu eta egin aproba

**herrizki aplikazioa**

Garapena: **artez** AKTING... **Babesleak:**

url: android: ios: